



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 24a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarrien garapenaren aldeko apustua egin dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarritzko errentari buruzko lehengo legedira itzul dadin. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012/2013 ikasturterako haurrak hartzea arautzen duen Ebazpena indargabetu dezan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Canal 4 Navarra” telebistaren artxiboak eskura ditzan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Félix Garrido” zentroa 2012. urtean zehar irekitzeko konpromisoa har dezan. Mozioa erretiratzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondarearen inbentarioa egin dezan. Mozioa erretiratzea (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten baitu Marokorekiko arrantza-akordioa guztiz koherentea izan dadin Nazioarteko Zuzenbidearekin eta Giza Eskubideekin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zergatik antolatzen dituen Nafarroako Gobernuak ekitaldi publikoetan eukaristia eta elizkizunak, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (14. or.).
- Galdera, emakumeen genitalen ebaketa detektatu, kontrolatu eta desagerrarazteko protokolo, proiektu, programa eta jarduketei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (14. or.).
- Galdera, “Joan eta Galde” gazteentzako informazio aldizkaria soilik gaztelaniaz argitaratzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (15. or.).
- Galdera, Orreaga etorbidean kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoan euskara ofiziala izateari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako zuzendariak ordainsari aldatuak jaso ditzaten ezarritako irizpideei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (16. or.).
- Galdera, Caritasi oinarritzko errentaren ordainketarako aurrerakinak itzultzeari buruzkoa. Galdera erretirata (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Txostena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalek ezarritako epeak betetzeari buruzkoa, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina. Akats zuzenketa (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko otsailaren 8an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parla-mentura igorri du 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamen-tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztai-laren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikuluan xedatutakoarekin bat, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea onetsi zen, toki entitateekiko lankide-tza ekonomikorako tresna bat izan zedin, eta hel-buru nagusi hartuta nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea Foru Komunitate osoan.

Azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legeak, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula eza-rri zituenak 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako, Inbertsio Plan horren zuzkiduren zenbatekoak esleitu zituen.

Mendebaldeko ekonomiei eragiten dien krisi ekonomikoak, batetik, zeinak ez baititu Foru Komunitatea eta toki entitateak salbuetsi, eta toki entitateak zorpetzearen arloan arau-irizpide berriak aplikatu beharrak, bestetik, Inbertsioen Plana motelago betetzea ekarri dute.

Baliabideen kudeaketa malguagoa eta eragin-korragoa lortu eta dinamizatzeko, beharrezkoa da haren lege erregulazioa aldatzea.

Ildo horretan, foru lege honek Toki Inbertsioen egungo Planaren indarraldiaren luzapena ezar-tzen du, plan berria onetsi arte, eta Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen dio baimentzeko gastu-konpromisoak hartzea eta egiazko gastuak egitea, hasieran aurreikusitako indarraldia gaindi-tuta.

Era berean, malgutasun handiagoa ezartzen da salbuespeneko araubidean obrak sartzeko,

eta, horrekin batera, aldi baterako araubide bat, obra bat egiteko bideragarritasun txostena lortuta, bideragarri deklaratu ondoren arauetan egindako aldaketen ondorioz bideraezin bilakatu diren toki entitateen kasurako.

Horrez gain, neurriak hartu dira, salbuespenezko araubidearen onuradun izan diren entitateek onura hori eskuratzeko bere gain hartu zituzten konpromisoak beteko dituztela bermatzeko.

Bestalde, Toki Inbertsioen Planari atxikitako baliabideen kudeaketa hobetze aldera, erraztu egin da entitateek konprometitutako inbertsioei uko egiteko prozedura, baztertutako inbertsioei arauak ematen zien tratamendua emanez, inbertsio horiek, hartara, Planari atxikirik jarrai dezaten.

Azkenik, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari areagotu dezan urgentzia nabarmeneko eta salbuespenezko araubideko kasuetarako aurreikusitako zuzkidura, egoera horiei sortzen diren unean aurre egin ahal izateko.

Lehenengo artikulua. Toki Inbertsioen Planaren indarraldia luzatzea.

Toki Inbertsioen Planaren indarraldia luzatu egin da, plan berri bat onetsi arte; hortaz, Toki Inbertsioen egungo Planaren funtsen kargura gastu konpromisoak hartu eta horiek baimendu ahal izanen dira, egungo Inbertsio Planean eta erreseban sartuta dauden lanen zerrenda osatzeko, bai eta urgentzia nabarmeneko eta larrialdieta-ko prozedurak erabiliz sartzan direnena ere.

Bigarren artikulua. 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen aldaketa.

2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 12., 16. eta 17. artikulua aldatu dira.

Bat. 12. artikulua testu berria.

“12. artikulua. Inbertsioen araubide ekonomiko finantzarioa.

1. Ohiko Planeko plan zuzendarietan, toki programazioan eta zeharbideak urbanizatzeko egiten diren inbertsioak finantzatzeko ekarpenen araubide orokorra hauxe izanen da:

- a) Plan zuzendariak:
 - Uraren goi-hornidura: % 80.
 - Ibaien arazketa eta saneamendua: % 80.
 - Hiri hondakinak:
 - Bilketa: % 70.
 - Tratamendua: % 80.
 - Hondakin berariazkoak:

- Bilketa: % 70.

- Tratamendua: % 80.

b) Toki entitateek programaturiko azpiegiturako obrak:

- Uraren goi-hornidura, plan zuzendarietan sartu gabea: % 80.

- Hornidurako tokiko sareak: % 70.

- Argiteria publikoa: % 70.

- Zolatzak: % 70.

- Udal eraikinak: % 70.

- Hilerriak: % 70.

- Herrietako bideak: % 70.

c) Zeharbideen urbanizazioa:

- Zeharbideen urbanizazioa: % 70.

2. Kasu bakoitzean behar duen portzentajea aplikatuko da Inbertsio Planean sartutako inbertsioen zenbateko lagungarrien gainean. Inbertsio mota bakoitzari dagozkion zenbateko lagungarriak zehazteko irizpideak erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Ekarpeneren portzentajea handitzen ahalko da, plan zuzendariei, toki programazioari eta zeharbideen urbanizazioari dagozkien inbertsioen zenbateko lagungarriaren % 100 iristeraino, baldin eta kasuko toki entitatearen ahalmen ekonomikoa aztertu ondotik, bideraezina izan bada, une horretan aplikatzekoa den araudiaren arabera, eta entitate horrek salbuespenezko araubidean sartzeko eskatu badu. Kontzeptu horretan egiten den ekarpena ordaintzeko, orokorrean eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai eta araubide horretan sartzeko hartutako konpromisoak betetzen direla frogatzen duen ziurtagiria ere.

4. Libreki erabakitako inbertsioetarako ekarpenen araubidea egindako inbertsioaren % 100erainokoa izanen da, entitate bakoitzerako ezarritako gehieneko erabilgarritasunaren mugarekin.”

Bi. 16 artikulua testu berria.

“16. artikulua. Gastu konpromisoak.

1. Inbertsioen bat Ohiko Planean sartuta edukiz gero, toki entitateek haren exekuzio proiektua aurkeztu beharko dute, urte horretan toki entitate horretarako sartu diren inbertsioak finantzatzeko plan ekonomiko eta finantzario batekin batera, bai eta toki entitate eskatzaileak hartutako erabakia ere, bertan jasota finantziarioa foru lege honen 7. artikuluko b), c) d) eta e) letretan aurreikusitako baliabideetako bat erabiliz osatzeko konpromisoa; hain zuzen ere, inbertsioa Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kargura edo beste era-

kunde publiko edo pribatuen ekarpenen bidez osorik finantzatzerik ez dagoen inbertsio zatia osatzeko konpromisoa.

2009. urterako sartutako inbertsioei dagokien dokumentazioa hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, Plana argitaratzen denetik hasita.

Baldin eta dokumentazioa 2010 eta 2011ko ekitaldietarako obrei buruzkoa bada, agiriak 2010eko apirilaren 1a eta irailaren 1a baino lehen aurkeztuko dira, hurrenez hurren, eta 2012ko obrak direnean, berriz, 2011ko maiatzaren 1a baino lehen.

2. Proiektuaren egokitasun teknikoa nahiz ekonomikoa eta bideragarritasun ekonomikoa finantzarioa egiaztatu ondotik, Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak zehaztuko du Inbertsioen Planaren kargurako gehieneko ekarpen ekonomikoa, foru lege honen 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3. Baldin eta, haien zorpetzea dela eta, toki entitateak bideraezinak direla kontsideratu bada sartutako inbertsioak finantzatzeko, une horretan aplikatu beharreko araudiaren arabera, edo bideragarritasuna frogatu ahal izateko behar den dokumentazioa aurkeztu ez badute, 15 egun balioduneko epea izanen dute, gorabehera hori jakinarazten zaienetik, inbertsioa beren finantza ahalmenari egokitzeko, edo inbertsio horretarako bideragarritasun ekonomikoa emanen dien bestelako finantzabideren bat aurkezteko, bai baliabide gehigarrietarako konpromisoa hartuz, bai salbuespenezko araubidea eskatuz.

Salbuespeneko araubideari atxikitako toki entitateek planean sartutako inbertsioa amaitu eta ondoko bost urteetan, gutxienez, eutsi beharko diete inbertsioa salbuespenezko araubide horretan sartzeko hartu zituzten konpromisoei.

Konpromiso horiek adierazitako epean betetzen ez badira, lortutako ekarpena itzuli egin beharko da; zenbateko hori, kasua bada, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan parte hartzeko funtsetik kenduko da.

4. Modu horretan ezartzen diren ekarpenak behin-behinekoak izanen dira, kasuan kasuko kontratua adjudikatzen den arte, orduan Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak zehaztuko baitu ekarpena, adjudikazioan lortzen den beherapenaren arabera, halakorik gertatuz gero.

5. Adjudikazio prozedura baten ondorioz edo exekuzio fasean daudenean inbertsioei egiten zaizkien hobekuntzen balorazio tekniko eta ekonomikoa egin beharko da, gehieneko ekarpen ekonomikoa haien zenbatekoa kentzeko.

Hiru. 17. artikulua. Inbertsioen Planetik baztertze

ko arrazoiak.

1. Toki Programazioko jarduketak inbertsioen planetik baztertze

ko arrazoiak izanen dira honakoak:

a) Foru lege honetan ezarritako moduak eta epeak ez betetzea.

b) Bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa ezarritako epeetan zehaztu ez izana, ez finantzaketa arruntean ezta salbuespenezkoan ere.

c) Egin beharreko obrak urtebeteko epean ez hastea, Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak foru lege honen 16. artikuluan aurreikusitako gastuaren konpromisoa finkatzen duen ebazpena ematen duenetik kontatzen hasita.

d) Obrak sartu ondoren gertatutakoengatik inbertsioak betetzerik ez izatea.

e) Inbertsioa salbuespenezko araubidean sartzeko hartutako konpromisoak ez betetzea, aurreko artikuluan jasotako moduan.

f) Toki entitateak uko egitea.

2. Plan zuzendariei eta zeharbideen urbanizazioari dagozkien jarduketetan, baztertze

ko arrazoiak aurreko idatz-zatiko a), b), d), e) eta f) letretan aurreikusitakoak izanen dira, eta hasierako datak egokitu eginen dira, inbertsioa betetzearekin zerkusia duten erakunde publiko desberdinen eskurhartzean gertatzen diren inguruabarren arabera.

3. Jarduketak hein batean gelditu ahalko dira inbertsio planetatik kanpo, behin gutxienez 100eko 50 exekutaturik dagoela eta 100eko 50 horrek unitate bereizgarria eta funtzionalki bideragarria osatzen duela, sustatzaileari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik amaitzea ezinezkoa denean.

4. Baztertze

ko erabakia hartuko du ekarpen ekonomikoa finkatu zuen organo berak, dagokion espediente

tramitatu ondotik entzutea emanda toki entitate interesdunari.

5. Artikulu honetan aipatzen diren arrazoiengatik Planetik baztertutik gertatzen diren toki entitateen inbertsioak, foru lege honen 15.4 artikuluan aurreikusten diren erreserbako zerrendetan azkeneko lekuan daudenen atzean sartuko dira.

Xedapen iragankorra. Salbuespeneko araubidean sartzeko aldi baterako araubidea.

Plan honetan sartutako inbertsioak finantzatzeko bideragarritasunari buruzko aldeko txostena jaso duten toki entitateek, 16. artikulua

zatian aurreikusitako gehieneko ekarpen ekonomikoa ezarri ondoren, arau irizpide berrien aplikazioaren ondorioz, ezin badiete aurre egin inbertsioak dakartzan finantza betebeharrei, 16.3 artikuluan aurreikusitako onurak aplikatzeko eskatu ahal izanen dute, foru lege hau argitaratu eta 15 eguneko epean. Eskaeraren ebazpena eman ondoren, obra hasi beharko dute gehienez ere 4 hilabeteko epean, eta epe hori kontuan hartuko da jarduketak baztertzeko 17.1c) artikuluan aurreikusten den arrazoiaren ondorioetarako.

Xedapen gehigarri bakarra. Erreserbako zuzkidura areagotzeko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruz-

ko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 9.2 artikuluan aurreikusitako erreserbaren zuzkidura hantitzeko, plan horri atxikitako gerakinen kargura, gastua konprometitzeko sortzen diren beharren arabera.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe gelditu dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Aldatu nahi den foru legeak, zeina 2010eko abenduaren 17ko NAO-n argitaratu baitzen, "okupazio-monitoreak" aipatzen ditu 1. artikuluko j) letran, baina terminologia zuzena ez da hori, baizik eta "okupazio-terapeutak"; hortaz, terminologia hori mantentzeak okerra eragin dezake, ez baita-go halako izendaperik.

Foru lege proposamenaren testua:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzen da. Hona testua:

Artikulu bakarra.

"j) Osasun Mentaleko laguntza-zerbitzu diziplina anitzekoak sortzea, psikiatreek, psikologo klinikoek, erizaintzako diplomadunek, gizarte-langileek, okupazio-terapeutek, erizaintzako laguntzaileek eta planen helburuak ziurtatzeko egoki irizitako bestelako langileek osatuak: Drogamenpekotasun Plana, Espetxe-psikiatriako Plana, Nerabeei Laguntza Emateko Plana eta sor daitezkeen bestelakoak."

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarrien garapenaren aldeko apustua egin dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia berriztagarrien garapenaren aldeko apustua egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

PPk Diputatuen Kongresuan duen gehiengo osoak ahalbidetu du energia berriztagarrien gainerako moratoria bat onestea, zeinak, berez, zeharo gerarazten baitu horien garapena gure herrian. Mozio hau sinatzen dugunon ustez, erabili diren argudioak pobreegiak dira hain munta handiko erabaki bat justifikatzeko, eta gertu-gertutik ukitzen dituzte gure foru erkidegoa nahiz bertan energia berriztagarrien eta horien teknologiaren garapenaren alde urteotan oro har egindako apustua. Izan ere, Nafarroan sortu eta Nafarroan kokatutako punta-puntako enpresek zuzen-zuzenean paira dezakete erabaki horren inpaktu negatiboa, bai eta enpresa horietako langileek ere.

Ez da onargarria energia berriztagarrien eta ekonomia berdearen garapenaren aldeko apustuan atzerapausoak ematea dakarten erabakiak hartzea, ezta bizi dugun egoera ekonomikoan ere; izan ere, sektore horri esker milaka lanpostu sortu dira bai Nafarroan bai Espainian. Eta ezin da ahantzi lehenago ere neurri gogorak hartu zirela primei dagokienez, tarifa-defizitak eragindako arazoak arintzeko.

Gure iritziz, erabaki horrek atzerapena dakarkio Espainiari energia berriztagarrien esparruko erreferentziako herrialde gisa, eta atzerapena dakarkio orobat hazkuntza ekonomikoari, murriztu egiten baititu sektoreak eskaintzen zizkigun aukera handiak, krisiaren aurka borrokatzeko eta gure sektore ekonomikoen aniztasunari –eta, horrenbestez, beste sektore batzuekiko mendekotasun ezari, esaterako, higiezinaren sektorearekiko mendekotasun ezari– mesede egiteko.

Gure iritziz, erabaki okerra da krisiaren aurka borrokari begira eta langabeziaren aurkako borrokari begira, ez aipatzearen, noski, Arias Cañete ministroak egindako iragarpenari gehitu beharreko erabaki oker bat dela, ministroak iragarri baitzuen uko egingen zaiola 2020rako CO₂ emisioak % 30 murrizteko konpromisoari.

Klima-aldaketa ez da asmatutako zerbait, bai zik eta errealitate bat, eta Gobernuak eta administrazioek –beren maila guztietan– beren konpromisoa azaldu behar dute.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du apustu irmoa egin dezan energia berriztagarriak Foru Komunitatean garatzearen alde, eta Nafarroak arlo horretan erreferentzia izaten jarraitzea ahalbidetuko duten estrategiak taxutu ditzan, sektorearekin batera.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du moratoria hori berrazter dezan,

berekin dakarrelako kualifikazio handiko sektore bat ahultzea, langabezia gehiago sortzea, inbertsiogileak kaltetzea, klima-aldaketa mespretxatzea eta ingurumenaren errespetuari dagokionez Europaren isatsean jartzea.

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko errentari buruzko lehengo legedira itzul dadin.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita oinarrizko errentari buruzko lehengo legedira itzul dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Politikako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren otsailaren 9ko 57/2012 Foru Agindua, gizarteratzeko eta laneratzeko eta enplegugarritasuna hobetzeko laguntza arautzen duena.

Gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza arautzen duen foru agindu berria, zeinak oinarrizko errenta ordeztan baitu langabezia egonik gizarte-bazterketako egoeran ez daudenei dagokienez, ahulen aurkako beste kolpe bat da, zeren gizarte-eskubideak murrizten baititu eta are gehiago gogortzen baititu oinarrizko errenta berriaren bal-

dintzak, berez oso gogorrek zirenak. Murrizketa horietatik ondokoak nabarmen daitezke:

– Prestazioak agortu eta diru-sarrerarik ez duten langabetuek laguntza jasoko dute 45 eta 65 urte bitarte badituzte soilik, eta 30 urtetik goitikoek, aldiz, seme-alabak badituzte jasoko dute laguntza. Lehen, diru-sarrerarik ez zuten 25 urtetik goitiko pertsona guztiek kobratzen zuten laguntza.

– Azken 12 hilabeteetan gutxienez ere 90 egun lan egin izana eskatzen da, edo azken 24 hilabeteetan 180. Denbora hori lan egin ezinda egon direnak laguntzarik gabe gelditzen dira.

– Zenbatekoa % 10 murrizten da prestazioa jasotzen denetik urtebete igarota, eta % 20, prestazioa jasotzen denetik urte eta erdi igarota.

– Bakarrik dagoen pertsonarentzako zenbatekoa berdin gelditzen da, baina seme-alabak dituzten pertsonentzako zenbatekoa 64 euro jaisten da hilean, eta 5 pertsona edo gehiagoko familientzako prestazioa, berriz, 129 euro jaisten da.

– Laguntza 24 hilabetez kobratuz gero, urtebetean ezin izanen da berriro kobratu.

– Prozedura-arazo oso larri bat. Baldin eta administrazioak ez badu garaiz eta forman erantzuten, administrazio-isiltasuna ez da positiboa izanen, ezpada negatiboa; alegia, eskabidea ezetsizat joko da.

– Eta, azkenik, bereziki esanguratsua da ondoko baiezta: laguntza hau, oinarrizko errenta ez bezala, ez da gehiago izanen legez ziurtatutako prestazio bat –hots, eskubide bat–, eta aurrekontuaren araberako laguntza bat izatera igaroko da.

Finean, Oinarrizko Errentari buruzko Foru Lege berria (orain gizarteratze-errenta deritzo) onestean gertatutako murrizketa handia zen berez; izan ere, kanpoan uzten zituen erroldan 24 hilabete baino gutxiago daramaten pertsonak eta

egoera irregularrean dauden pertsonak, eta denbora jakin batetik aurrera jaso beharreko zenbatekoa jaisten zuen. Eta orain ezagutu dugu langabezian dauden pertsonentzako laguntzaren murrizketa handi hau (gogorazi beharra dago lehengo oinarritzko errentaren onuradunen % 60 eta 70 bitarte zirela).

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Bere arbuioa agertzea Gizarteratzeko eta laneratzeko eta enpleguarratasuna hobetzeko laguntza arautzen duen Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren otsailaren 9ko 57/2012 Foru Aginduaren aurrean, eta Nafarroako Gobernua premiatzea oinarritzko errentari buruzko lehengo legedira itzul dadin.

Iruñean, 2012ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012/2013 ikasturterako haurrak hartzea arautzen duen Ebazpena indargabetu dezan.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2012/2013 ikasturterako haurrak hartzea arautzen duen Ebazpena indargabetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren urtarilaren 30eko 27/2012 Ebazpenak, funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2012-2013 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura arautzen duenak, ondokoa ezartzen du I. eranskinen A letran –"Hautapen bare-

moa"–: Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen lan-egoera eta/edo egoera akademikoa. Hartara, lehentasun-irizpidea da hezkuntza-etapa horretako ikasleak onartzeko, atal horretako gehieneko puntuazioa ematen baitzaio: 20 puntu.

Ebazpen horren bidez ezarritako baremo berria diskriminazio larria da langabezian dauden familientzat, egoera larri horren ondorio ekonomikoak pairatzeaz gain zailtasunak izanen baitituzte, baremo honekin, Orik 3 urtera bitarteko seme-alabak hezkuntza publikoan sartzeko.

Izquierda-Ezkerraren iritziz, neska-mutiko guztiek dute eskubidea Haur Hezkuntzako lehen zikloan ikapostu publiko bat lortzeko; izan ere, etapa hori derrigorrezkoa ez bada ere, Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzeko Lege Organikoak hezkuntza-etaparen izaera aitortzen dio.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko 84. artikulua ondoko lehentasun-irizpideak ezartzen ditu ikasleen onarpenari buruz ari delarik: ikastetxean anai-arrebak izatea, gurasoren edo legezko tutoreen baten bizilekua hurbil egotea, familia-unitatearen urteko errentak, errentakalkulazterakoan familia ugarietara aplikatzen zaizkien berariazotasunak aintzat hartuta, eta ikaslearen edo gurasoren edo legezko tutoreen baten ezgaitasuna.

Argi dago 27/2012 Ebazpeneko I. eranskinen ezarritako baremoak agindu hori urratzen duela, lehentasun-irizpide gisa ezartzen duelako "aitaren eta amaren edo legezko tutoreen lan-egoera eta/edo egoera akademikoa".

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko 15. artikulua, berriz, ondokoa ezartzen du: "Administra-

zio publikoek Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikaspostu publikoen eskaintza pixkanaka gehitzea sustatuko dute". Hortaz, Nafarroako Gobernuak ziurtatu egin beharko luke hezkuntza publikoaren eskaintza nahikoa dela Haur Hezkuntzako lehen zikloan sartzeko populazioaren eskari osoari erantzuteko, hartara eskola adineko populazio guztia- ren hezkuntzarako eskubidea ziurtatuta Nafarroan.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du urtarrilaren 30eko 27/2012

Ebazpena indargabetu dezan eta horren ordez beste ebazpen bat onetsi dezan, onarpen irizpideak eta baremoa Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan ezarritako lehentasun-irizpideei jarraikiz zehaztuko dituen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikaspostu publikoen eskaintza pixkanaka gehi dezan, hezkuntza etapa horretako eskola-populazioaren eskari osoari erantzuteko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 4an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da "Canal 4 Navarra" telebistaren artxiboak eskura ditzan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita "Canal 4 Navarra" telebistaren artxiboak eskura ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak "Canal 4 Navarra" telebistaren ikus-entzunezkoen artxiboa eskura dezan eta Nafarroako Fimotekekaren funtsetan sar dezan.

"Canal 4 Navarra" telebista autonomikoak itxiera iragarri zuen 2012ko urtarrilaren 3an, 19 langile lanik gabe utzita. Egungo krisi ekonomikoa hedabide askok itxi behar izatea eragiten ari da, eta

langileek beste zailtasun bat gehiago edukitzea sektorean beste lanpostu bat aurkitzeko.

"Canal 4 Navarra" gaztelaniaz emititzen duen telebista-kate autonomiko bat da, Nafarroan 1997ko martxoaren 17tik aitzina diharduena, Nafarroako enpresaburu-talde batek telebista nafar bat abian jarri zuenetik. 2004ko maiatzean, Canal 4 eta Canal 6 Navarrarekin batera, Nafarroako LTDaren zerbitzu publikoaren esleipen-hartzaile atera zen, eta harrezkero seinale digitalean emititzen du.

Canal 4k produkzio propioko programak emititzen ditu: magazineak, albistegiak eta zuzeneko saio bereziak. Hona programa propioen zerrenda: Canal 4 Noticias (1. eta 2. edizioak), La Entrevista, Avance Informativo, El Mirón, Nos queda la palabra, Crearte, Por la Escuadra, 7 Días, Los Caminos del Vino, Las 4 Esquinas, La Torre de Babel, La Buhardilla de Alú, Navarra sin Fronteras, Habitación con vistas, eta jaietako programazio berezia (prozesioak, Nafarroaren eguna, eta abar). Udan zehar, gainera, SanFermanía, El Encierro, SanFermín eta Navarra Splash programak ere eskaintzen ditu.

"Canal 4 Navarra"ren ikus-entzunezkoen artxiboa ikaragarri handia da –1997tik 2012ra bitarteko grabazioak ditu–, eta Nafarroarentzat oso garrantzitsua da horiek gorde eta mantentzea. Foru Komunitatearen historia hurbila kontsultatzeko eta aztertzeko zaindu beharreko materiala da.

Nafarroak badu bere Filmoteka, eta haren egin-kizuna da Nafarroarekin lotutako ikus-entzunezkoen filmak eta lanak berreskuratu, artxibatu, kon-tserbatu, ikertu eta hedatzea. Nafarroako Filmotekaren kudeaketa Nafarroako Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Institutuari dagokio, eta institutua, berriz, Nafarroako Gober-nuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harrema-netarako Departamentuaren mende dago.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu-talde Popu-larrak ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du:

1. Akordio bat lor dezan “Canal 4 Navarra”rekin, haren ikus-entzunezkoen artxiboa beretzat lortze-ko.

2. Nafarroako Filmoteka izan dadin “Canal 4 Navarra”ren ikus-entzunezkoen artxiboa gorde, antolatu eta katalogatzeko arduraduna.

3. Beharrezkoa baldin bada, Nafarroako Gober-nuak “Canal 4 Navarra”ren langileak balia ditzan “Canal 4 Navarra”ren ikus-entzunezkoen artxiboa digitalizatzeko eta dokumentatzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 15ean

Amaya Zarranz Errea foru parlamentaria

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Félix Garri-do” zentroa 2012. urtean zehar irekitzeko konpromisoa har dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen “Félix Garri-do” zentroa 2012. urtean zehar irekitzeko konpro-

misoa har zezan. Mozio hori 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-lean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondarearen inbentarioa egin dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondarea-

ren inbentarioa egin zezan. Mozio hori 2011ko abenduaren 16ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten baitu Marokorekiko arrantza-akordioa guztiz koherentea izan dadin Nazioarteko Zuzenbidearekin eta Giza Eskubideekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak, Europako erakundeekin batera, bere babesa erakusten du Marokorekin negoziatzen den arrantza-akordioa guztiz koherentea izan dadin Nazioarteko Zuzenbidearekin eta Giza Eskubideekin.

2.- Nafarroako Parlamentuak eskatzen du erakunde eta organismo autonomikoen, nazionalen eta nazioartekoekin kontuan izan dezatela krisi ekonomiko eta finantzarioak eragin garrantzitsua duela errefuxiatu sahararren kanpalekuetan, eta

horrek larritasun humanitarioko egoera bat ekar dezakeela.

3.- Nafarroako Parlamentuak jarraituko du Diputatuen Kongresuak onetsitako ebazpenak aldeztu, Mendebaldeko Sahararen behin betiko estatutuak nazioarteko legeak errespetatu ditzen eta herri sahararra autodeterminaziorako duen eskubideaz libreki baliatzearen emaitza izan dadin, Nazio Batuen gutunaren eta Nazio Batuen Erakundeak onetsitako ebazpenen arabera erreferendum baten bitartez.”

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik antolatzen dituen Nafarroako Gobernuak ekitaldi publikoetan eukaristia eta elizkizunak.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik antolatzen dituen Nafarroako Gobernuak ekitaldi publikoetan eukaristia eta elizkizunak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca andreak, Bildu-Nafarroa parlamente-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduak esaten duenari eutsiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak hainbatean antolatzen dituen zenbait ekitalditako gonbidapenak ailegatzeko zaizkio geure taldeari. Gauzak honela, harriduraz eta kezka ikusten dugu ekitaldi horietako programetan eukaristiak eta elizkizunak antolatzen direla.

Galdera

Hau kontuan izanik, zein arrazoi dela-eta antolatzen ditu Nafarroako Gobernuak ekitaldi publikoetan eukaristia eta elizkizunak?

Iruñean, 2012ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, emakumeen genitalen ebaketa detektatu, kontrolatu eta desagerarazteko protokolo, proiektu, programa eta jarduketei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, emakumeen genitalen ebaketa detektatu, kontrolatu eta desa-

gerarazteko protokolo, proiektu, programa eta jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk dira Osasun Departamentuak ezarri-rik edo ezartzeko dituen proiektuak, programak eta jarduketak, emakumeen genitalen ebaketak –bere aldagai eta lokalizazio guztietan– detektatu, kontrolatu eta desagerrarazteko?

Iruñean, 2012ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, “Joan eta Galde” gazteentzako informazio aldizkaria soilik gaztelaniaz argitaratzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, “Joan eta Galde” gazteentzako informazio aldizkaria soilik gaztelaniaz argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nekane Pérez Irazabal andreak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Zergatik hasi da Gazteriaren Nafar Institutua “Joan eta Galde” izeneko gazteentzako informazio buletina erdara hutsean argitaratzen 2012an?

Iruñean, 2012ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Orreaga etorbidean kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoan euskara ofiziala izateari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Orreaga etorbidean kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoan euskara ofiziala izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nekane Pérez Irazabal andreak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du errespetatzen bete beharrekoa den euskararen ofizialtasuna errespetatzen Iruñeko Orreaga Etorbideko 11n zabaldu duen Kontsumitzaileen bulegoan?

Iruñean, 2012ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako zuzendariek ordainsari aldakorrak jaso ditzaten ezarritako irizpideei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako zuzendariek ordainsari aldakorrak jaso ditzaten ezarritako irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko idatzizko galdera egin du, Ekonomiako eta Ogasuneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zein dira Nafarroako Gobernuak ezarritako irizpideak, Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan finkatutako helburuen arabera ordainsari aldakorra Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresa bakoitzeko zuzendari kudeatzaileek jaso dezaten?

Iruñean, 2012ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Caritasi oinarrizko errentaren ordainketarako aurrerakinak itzultzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Enrique Martín de Marcos jaunak aurkezturiko galdera, Caritasi oinarrizko errentaren ordainketarako aurrerakinak itzultzeari buruzkoa, erretiratu izanari

dagokionez. Galdera hori 2011ko abenduaren 16ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Txostena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalek ezarritako epeak betetzeari buruzkoa, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalek ezarritako epeak betetzeari buruzko txostenaren testuan. Txostena Nafarroako Arartekoaren erakundeak egin zuen eta 2012ko urtarrilaren 20ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Beraz, zuzentzen da, akats zuzenketa hau argitaratuz.

– 9. orrialdean, honela dioen lekuan: “Ondoz ondoko kontsultak, lehentasunezkoak: 125 egun”

– Honela behar du: “Ondoz ondoko kontsultak, lehentasunezkoak: 25 egun”

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

